

1.-2019EAG3

**G3.** Osatu erreazio organiko hauek, eta adierazi kasu bakoitzean zer motatakoak diren. Izendatu produktuak, eta formulatu erreaktiboak eta produktuak.

- a) 1-Bromopropanoa + KOH  $\longrightarrow$
- b) Propan-2-ola +  $\text{KMnO}_4$   $\longrightarrow$
- c) Etanola +  $\text{H}_2\text{SO}_4$   $\xrightarrow{\Delta}$
- d) Etanola + azido propanoikoa  $\longrightarrow$

2.-2019EBG3

**G3.** Adierazi ea baieztapen hauetako bakoitza zuzena ala okerra den, eta arrazoitu erantzunak:

- a) Alkeno baten lotura bikoitzak hidrogenoa adizionatzen badu, alkanoa ematen du.
- b) Aldehido funtzio-taldearen erredukzioak azido karboxilikoa ematen du.
- c) Azido sulfurikoaren bidez etanola deshidratatzeak etinoa ematen du.
- d) Bi molekula alkohol kondentsatzen direnean, eterra eta ura sortzen dira.

3.-2019UBG3

**G3.** Osatu ekuazio kimiko hauek. Idatzi konposatu organiko guztien formula erdigaratuak, eta izendatu erreazio-produktuak.

- a) 2-Butanolaren deshidratazioa.
- b) Propenoari hidrogeno kloruroa gehitzea.
- c) Azido propanoikoa etanolarekin esterifikatzea.